

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Xalbadorri omenaldia /8

BOTEPRONTOAN
Jasone Erostarbe /9

LEINTZ GATZAGA
San Milixan ferixa /10

KORUETA AUZOA

**Erretaularen
berritze lanak**

KIROLA: IBAN CABERO/6 • NIRE BIDAIA HURA: OIER ETXEBARRIA/7

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 10
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 11
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 85 83

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
Aretxagazeta	943 79 86 21
Fax	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte-Laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide Elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kiroletxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi E.E	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murukixo M.E	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun zentroa	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi Geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze-Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:30

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: AZATZAN
Domekak: 12:30

ARKARAZON
Domekak: 11:30

OHARRAK

KONTZERTUA GAZTETXEAN
Eguakotx honetan, hilak 9, VS taldeak kontzertua emango du gaztetxean gaueko 22:50ean.

1975. URTEAN JAIOTAKO KINTOEN AFARIA
Azaroaren 17an, 1975ean jaiotako kintoek afaria egingo dute. Izena emateko, Arlutzer joan eta 1.000 pezeta ordaindu behar dira. Afari egunean Urbaltz tabernan elkartuko dira, arratsaldeko 19:30ean, hain justu.

1976. URTEKO KINTOAK LANTZIEGORA
1976. urtean jaiotako kintoek Lantziegon (Errioxan) egingo dute bazkaria zapatu honetan. Autobusa Azbeko geltokitik irtengo da goizeko 10:30ean.

ARETXARTEN BAZKIDE BERRIEN BILA
Aretxartek, Aretxabaletako merkatarien elkarteak, herrian bazkide gehiago egin gura ditu. Horretarako, orain arte elkartearen ez dauden denda eta tabernak animatu gura ditu parte hartzera. Batzordekideen esanetan, bazkideek edozelako ikastaroak egiteko abantailak izango dituzte.

LORAMENDIRENAGENDA

BIONERGETIKAREN GAINEKO HITZALDIA
Maite Zumaldek bioenergetikaren gaineko hitzaldia emango du datorren egunean, hilaren 15ean, udaletxe zaharreko bigarren solairuan, 19:00etan.

PATXI ZABALETAREN HITZALDIA
Patxi Zabaletak *Itsaso galdu zuteneko Nafarroa* izeneko hitzaldia egingo du azaroaren 22an, arratsaldeko 19:00etan.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Atzeratuen aldeko 12. jaialdia zinetokian

Urteroko ohiturari jarraituz, azaroaren 14an, atzeratuen aldeko jaialdia antolatu zuten herrian. Betiko moduan, atzeratuei laguntza emateko egin zuten festa. Besteak beste, trikitalari, akordeoi-lari eta bertsolariak aritu ziren taula gainean. 1992. urtean jaialdiaren 12. aldia egin zen.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ankalarua"

Txanka mehea.
Hanka meheak dituen.
Sin. Ankame,
txankame.
-Ankameia be bai tta ankalarua be bai.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
June Gastañaga
1ean, urtebete. Berandu, baina zorionak etxekoen partetik. Muxu bat!



ESKORIATZA
Auritz Iñurrategi
3an, 5 urte. Zorionak aita, ama eta Amaiurren partetik.



ESKORIATZA
Mikel Crespo
4an, 5 urte. Zorionak, aita, ama eta Lideren partetik.



ESKORIATZA
Ane Eraña
7an, 2 urte. Zorionak gelako lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Mainer Conde
9an, 2 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik..



ARETXABALETA
Markel Sáez de Gordo
12an, 5 urte. Muxu handi bat gurasoen partetik.



ARETXABALETA
Ioritz Sáez de Gordo
12an, 5 urte. Muxu handi bat gurasoen partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * ESKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Beti karreteka edo albuma dohanik !!

AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

**LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN**

**Mobiliario
ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**Taberna
Berri
jatetxea**

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67


ATREBENTZIAEZPADA/ Kintto afaririk egitten dozue? Faten zara?



JUAN ROKE ELORZA
Langillie




IRAIA AGINAGALDE
Ikaslie



JOSE MARI LASA
Erretiraue



ROSA DEL AGUILA
Langillie



ENEKO ARRIETA
Ikaslie eta langillie



ANA BELEN HIDALGO
Langillie

Ez, ez dogu egitten. 60ko kinttu naz, eta behin egin geuen. Hamar bat bakarrik batu gitzen, eta geroztik ez dogu besterik egin. Egitekotan, ez dakit faterik izen-go neukien lana dala-eta.

Gu oin bi urte hasi gitzen kintto afarixek egitten, eta egin dienetara fan naz. Giro politte egoten da, eta urtien ikusten ez dan jentiek egoteko aukera politte dala uste dot.


Aspaldixen ez dogu egin, 42ko kinttuok zahartute gaz-eta... Lehen egitten gittuen, emakumiekin be bai. Oso giro politte egoten zan, kantuen, bertsuetan egin eta edarto pasetan geuen.

Nire kinttakuek urtero egitten daue. Ni ez naz sekule be fan, hasieran kanpokue nitzelako eta ez neuelako iñor ezaguketan. Oin berandu dala pentsetan jat, leku-z kanpo egongo nitzake.

Bai, 84en izen nitzen ni kintto, eta geroztik egin izen die afarixek. Azkenenguetara ezin izen naz, fan kanpoan ninguen-eta ikesten. Ahal izen ezkerro, fango nitzake, giro politte egoten da-eta.

Bai, egitten da, baiñe ni ez naz sekule fan. Denpora askuen kanpuen egon naz ikesten eta gutxitan etorten nitzen. Igez, ostera, ez nitzen enterau, baiñe jakin ezkerro, fango nitzake.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK PINTADAK Egun batetik bestera etxebizitzak eta kaleko hormak pintadaz beteta ikustera ohituta gaude. Inguru errespetatu eta inoren etxebizitzari kalte egin barik ere pintadak egin daitezkeela erakutsi digute oraingoan gazte atxabaltarrek. Ez da ideia txarra, gauzak eskatu edo aldarrikatzeko orduan ez dago-eta diferentziarik, bai, ostera, errespetuari dagokionez. /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

KULTURA /4

Koruetako erretaula

Santiago apostoluaren bizitza kontatzen duen egurrezko erretaula konpontzen hasi dira.

KULTURA /5

Udazken Kulturala abian

Loramendi euskara elkarteak antolatutako udazkeneko kultura ekintzak bete-betean.

KIROLA /6

Piraguismoko arduraduna

Iban Cabero da Murruxiko mendizale taldeko piraguismo saileko arduradun berria.

ASTEKODATUA

15

MINUTUKO KONTZENTRAZIOA EGINGO DA


Asteleheneko ezohiko osoko bilkuran, *Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatu. Euskal presoak Euskal Herrira lelopean ordu laurdeneko kontzentrazioa egitea onartu zen.*

BESTEKEKESANA

“Aretxartek gaur egin duen batzarrerako deia dendari eta komertzio guztiei luzatu diegu baina jendea ez zaigu etortzera animatu. Ez dakigu zergatik baina ez da jende herririk etorri eta oso interesgarria izango litzatekeela uste dut. Hemendik deia luzatzen diet Aretxarten ez dauden dendariei gurekin elkartzeko, hitz egiteko bakarrik bada ere, eta oso gauza politak egiten ditugula ikusiko dute. Momentu honetan hogeita hamazortzi gara. Kopuru polita da baina jende gehiago animatuko balitz hobeto. Ikastaroez gain, hainbat kanpaina egingo ditugu, orain Gabonetako kanpaina prestatzen ari gara. Gure dendetara erostera datozen bezeroei loteria oparituko diegu.

AMAIA ZUBIA
GOITB/01-11-07

HERRITARRENBERBAK/ Felis Beltrán de Heredia



Nortasun kontuak

Bateratze garaiak dira, Europa batua, moneta bakarra... edo, beharbada, zurgapen garaiak. Ez dakit zein onura ekarriko duen moneta bakarrak, baina badirudi euro bat 166,386 pezeta dela ulertaraztea besterik ez dela garrantzitsua. Eguna heltzen denean ikusiko ditugu dakartzan eragozpen eta arazoak. Gu, ostera, Euskal Herriarentzat autodeterminazio eske. Aldrebestuta ote gabiltza? Ez dut uste, samurra da, gainera, azaltzea: ez gara espainiarak, ez dugu izan gura ere; beraz, zergatik halako interesa espainiar izan gaitezen? Nik opresioa, errepresioa eta derrigortzea dela esango nuke, baina Espainian eta hemen ere bai “vasco-espainiar” batzuek demokrazia dela diote. Espainiako legebiltzarrean Aznarren taldea da nagusi eta herriaren izenean dela esanda, “geuri eman zigun-eta botoa gehiengoak”; edozer gauza

egiten dute. Euskal Herrian euskal selekzioa bultzatzea onartu zen, presoek euren herrira etortzeko duten eskubidea onartu zen, “Bai euskarari” onartu zen... demokratikoki onartu ere. Espainian, ostera, asko inporta zaie hemen esaten edo onartzen dena. Euren menpe gaude eta gure ordezt hartzen dituzte erabakiak. Demokraziaz estalitako faxismoa. Nork sinis dezake demokrazia honetan? Nork sinis dezake zuzenbideko estatuan? Nork eska diezaioke konfiantza, apur bat bada ere, Euskal Herriari- no luzatzen den espainiar justiziar? Nik neuk, behintzat, ez; beraz, honen inguruko galdeketa egitea ere ez litzateke gehiegikeria izango. Geure nortasunari eutsi guran gabiltzanean, bestalde, herri aldizkariaren bateratzea etorri da. Guztiok formatu bera, guztiok euskara bera, guztiok bat. Non gelditzen da herriko nortasuna? Lehen geure-geurea zena orain denona da. Denona baina inorena ez.

“Nork sinis dezake Espainiako demokrazian, zuzenbideko estatuan edo justizian? Nik neuk, behintzat, ez”

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mireia Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Kintaden sasoi

Kalera urten eta kinto afariak iragaritzen dituzten kartelak besterik ez dira ikusten, 69koak, 75ekoak, 76koak... bapo jan eta juerga botatzeko aitzakia ederra. Orain, gainera, moda-modan dago egun osorako kanpora joatea. Batzuk Errioxako Lantziegora ei doaz, Kuzkurritara beste batzuk eta Bizkaia aldera joango direnak be badaude. Gainera, autobusa antolatzen denez, ez dago arduratu beharrik. Auskalo hemendik urte batzuetara noraino joango garen.

Urteera kontuetan atzean gelditzen ez direnak, piragua zaleak dira. Azken urteotan hainbat urteera egin dituzte, bai itsaso aldera baita Bidasoa errekarare. Hemendik aurrera beste norbaiti tokatuko zaio urteerok antolatzea, izan be, arduradun barria dago taldean. **Iban Cabero** dugu bera, animo eta zorte on egin behar barrietan.

Beste atxabaltar mordoxka bat Behobia-Donostia herri lasterketa egitera joango da datorren domekan. Herriko inguruetan makina bat lagun ikusten da aňiketan. Hauetako gehienak be, takarraran izerdi batzuk bota, eta aitzakia horrekin tripa majo beteko dute gero. Egiten dena eginda be janaririk eta giro onik ez dadila falta gure inguruan.

KULTURA/ XVI-XVII. mende ingurukoa izan daiteke eta Euskal Herrian dagoen bakarra

Santiago apostoluaren bizitza kontatzen duen Koruetako erretaula berrituko dute

MIRARI ALTUBE


Korueta auzoko elizan dagoen egurrezko erretaula berrituko dute datozen hilabeteotan. Santiago apostoluaren bizitza kontatzen duen erretaulak balio handia ei dauka, XVI-XVII. mende ingurukoa izateaz gain, Euskal Herrian dagoen bakarra baita.

Orain ia hiru urte Koruetako eliza berritu zutenean aldarean dagoen erretaula dotorea konpondu barik geratu zen. Gipuzkoako, eta Jose Olabe Aretxabaletako parrokiako diruzainaren esanetan, Santiago apostoluaren bizitza kontatzen duen errenazimentuko bakarretakoa izanik Euskal Herrian, Foru Aldundiaren eskuetan geratu ziren berritzeko lanak.

GABON OSTERAKO BUKATUTA

Hilabete inguru hasi ziren Donostiako Taula enpresako langileak lanean, eta hiruzpalau hilabete beharko dituzte konponketa lanak guztiz bukatzeko. "Gabonetarako ezingo dira lanak bukatu, ia urtarrilaren erdi inguruan izaten den", dio Josek.

Balio handiko erretaula daukate koruetarrek elizan, Santiago apostoluaren bizitza kontatzen duen Euskal Herriko bakarretakoa. Erretaula XVI-XVII. mende ingurukoa da, egurrezkoa, baina urteetan behin eta berriz margotu dutenez, orain



Gainetik emanda daukan margoa besterik ez zaio kenduko erretaulari. Ostein garbitu egingo da pipiak kentzeko.

lehengo itxurara bueltatu gura dute. Gainetik emanda daukan margoa kentzeaz gain, garbitu ere egingo dute, izan ere pipiz jositako baitago. Joseren esanetan horixe da egingo duten bakarra, apurtuta dauzkan zatiak ere ezingo

dituzte berregin eta: "Gainetik emanda daukan margoa besterik ez zaio kenduko. Oso egoera onean dago, baina atzamar zati-txoren bat edo falta bada dagoenatan geratuko da, debekatuta daukagu beste ezer egitea eta".

Erretaularen berriztatze lanek hamar bat milioiko aurrekontua daukate, eta Gipuzkoako Diputazioa eta Gotzaindegiaren artean ordainduko dituzte. 1999ko lanetan ez bezala, oraingoan auzokoei ez diete dirurik eskatuko.

LABUR

Euskal presoek hurbilketa eskatzeko bi mozio aurkeztu ziren asteleheneko osoko bilkuran

Euskal presoak hurbiltzea eskatu eta haiek bisitatza zahoaze la hildako senide eta lagunekin bat egiteko, mozio bi aurkeztu ziren asteleheneko ezohiko osoko bilkuran. Batasunak aurkeztutakoa Batasunako sei zinegotzien botoekin onartu zen, eta

EAJ/EAK aurkeztutakoak bi taldeetako lau zinegotzien botoekin egin zuen aurrera, Batasuna abstentitu egin zen-eta. Batasunak, ordu laurdeneko kontzentrazioa egiteko deialdia egin zieten herri-tarrei.

Hiru lanpostu atera ditu Udalak


Aretxabaletako Udalak ehorzle laguntzailea, kultur teknikari laguntzailea eta kultur teknikaria behar ditu. Azken hau barruko langileentzat da. Baldintzak GAOean ikusgai daude, eta izena emateko epea azaroaren 12an bukatuko da.

Bakarrik ureztatzeko sistema Belorrietan

Belorrietako erreka aldeko lorategietan ere bakarrik ureztatzeko sistema jarri dute. Belorrieta kaleko lorategi batzuek aspalditik zeukaten ureztatzeko sistema hori, eta emaitza ona ikusita, poliki-poliki herriko lorategi guztietan jarri gura da.

SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)



Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24
20550 ARETXABAleta
Tel.: 616 965 795

Jou Díaz
Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAleta

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

KULTURA/ Kultura ekintzez josita datoz azaroa eta abendua

Udazken Kulturala Loramendiren eskutik

MIRARI ALTUBE

Azaroa eta abendua bitartean Aretxabaletan egongo da zer ikusi eta zer entzun. Kontzertuak, erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak... Loramendi euskara elkarteak eta Udaleko Kultura Sailak egitarau oparoa prestatu dute atxabaltarrak ez daitezen aspertu.

Loramendi euskara elkarteak egitarau polita kaleratu du udazken honetako ekintzen berri emateko. Era guztietako ikuskizunak prestatu ditu, gainera, herritar guztien gustuak ase guran.

HITZALDIAK ETA KONTZERTUAK

Tarte zabala egin diete hitzaldiei egitarau honetan, eta era guztietako gaiak jorratuko dituzte. Bio-energetika izango du hizpide Maite Zumaldek hilaren 15ean. 22an, bestalde, Patxi Zabaleta izango da Nafarroaren berri emateko, eta 29an, berriz, Ixiar Lazkano, loreak zaindu ikasi gura duenaren dako.

Kontzertuak entzuteko ere ez da kanpora joan beharrik izango, Kultur Errotak herrira bertara ekarriko dizkigu-eta. Egubakoitz honetako bertan behera geratu bada ere, abenduaren 14an, Beñat Achyay eta Joel Merah iparraldeko kantariak izango dira. Eta Mikel Errazkin, berriz, 28an. Doinu lasaiak eta musika ona entzun gura dituenak aukera polita izango du.

Tarte zabala egin diete hitzaldiei egitarauan, eta era guztietako gaiak jorratuko dituzte

Txan magoaren ikuskizuna izango da, eta ez umeentzat, nagusiagoentzat baizik

Euskadin arriskuan dauden ornodunen inguruko erakusketa antolatuta da

Hitzaldi eta kontzertuez gain, Txan magoaren ikuskizuna ere izango da, eta ez umeentzat, nagusiagoentzat baizik. Magiaren ikuskizunaz gozatu gura duenak udaletxe zaharrera etorri baino ez du.

Nerea Elortza Loramendiko dinamizatzailearen esanetan, jendea, asko ez bada ere, interesatuta joaten da hitzaldietara: "Gaiaren arabera jende kopurua aldakorra da; makrobiotika, esate baterako, argi dago boladan dagoela, eta jende asko etorri zen hitzaldira. Joxerra Gartziazen hitzaldian, bestalde, jende gutxi, baina interesduna, ikusi zen".

Kontzertu eta hitzaldiez gain, sukaldaritza ikastaroa eta Badihardugu elkartearen aurkezpena ere izango dira abenduan, oraindik egunak zehaztu barik egon arren.

GRAFOLOGIA ETA ORNODUNAK

Negu Kulturalako egitaraua atara zain egon barik, Udalak ere hainbat ekintza antolatu ditu. Batetik, grafologia ikastaroa, zapatu honetan bertan hasi eta abendua bitartean dauden zapatu guztietan emango da. Oraindik badago izena emateko aukera.

Bestetik, Euskal Herrian desgertzeko arriskuan dauden ornodunen inguruko erakusketa antolatu dute Murruxoko txokoan. Eusko Jaurlaritzak antolatutako erakusketa da, eta *Ezagutu kontserbatzeko* izenpean, Euskadin, faunan eta landaredian, arriskuan dauden espezieen zerrendan oinarrituta dago. Hemendik eta azaroaren 14a bitartean astegunetan, arratsaldero, eta asteburuetan, goiz eta arratsalde, zabalduko dira atea ornodunen inguruko bitxikeriak ezagutzeko.

TXUTXUMUTXUA



Liburutegiak oraindik zeresan handia du

Internet dela eta, batek baino gehiagok pentsatuko du liburutegiak zahartuta geratu direla, baina bai zera! Liburutegiari etekin handiena zelan atera erakusteko, hainbat neska-mutiko pasatu dira urria eta azaroa artean handik. Josebak eta Andonik pazientzia handiz erakutsi zuten jokoan bitartez oso samurra dela liburu artean ibiltzea. Bestalde, Pello Añorga ipuin kontalariak urrian eta Lur Kortak hilaren 22an, ipuinen magiara hurreratuko dituzte umeak. /MIRARI ALTUBE

LABUR

Parrokiaren inguruan idatzitako guztia jasotzen duen liburuxka kaleratuko dute

Aretxabaletako Andre Mariaren Zeruratze parrokia urtebetean konponketa lanetan izan ostean, datorren azaroaren 17an inauguratuko dute. Hori aitzakia hartuta Aitor Antxia Leturiak Aretxabaletako parrokiaren inguruan XV. mendetik gaur arte idatzitako guztia jasotzen duen liburuxka egin du. Artxiboetan hainbat ordu pasatu ostean, parrokiaren inguruan kontatzen diren bitxikeria, pasadizo eta kontuak jaso ditu liburu horretan.

Parrokiaren inauguratze egunerako gertu egongo da liburuxka, gura duenak eskura izan dezan.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19
Basabe, 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 01 28

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 82 44



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETAKO

IBAN CABERO/MURRUKIXOKO PIRAGUISMO SAILEKO ARDURADUNA

"Momentu honetan 54 federatu gaude, Aretxabaletarako izugarri"

MIRARI ALTUBE

U da ostean hartu zuen Murrukixoko piraguis- mo saileko ardura Haritz Bedia eta Iñigo Trojaolarekin batera, eta gogoz ekin diote lanari. Emango duten lehenengo pausoa piraguen erabile- ra sistema aldatzea izango da.

Zelatan piraguis- mo saileko arduradun?

Oier Arantzabalek utzi oste- an, arduradun barik geratu behar zen saila, eta horren aurrean Haritzek, Iñigok eta hirurok hirukotea osatu dugu arduradun lanak betetzeko.

Zer moduz dago piraguis- moa Aretxabaletan?

Ondo esango nuke. Momentu honetan 54 federatu gaude, eta Aretxabaletarako izugarri da. Piraguak, berriz, hamar ditugu. Nik sei urte daramatzat federatuta eta azken urte eta erdian ondo fun- tzionatu duela esango nuke, irte- era asko egin dira eta bai itsaso- ra, bai erreketara ere, eta ikasta- roak egiteko aukera ere izan da. Irteeretara hamabi lagun baino gehiago ez da animatu izan, oso gus- tura ibili garela onartu behar dut.



MIRARI ALTUBE

"Hemendik aurrera Azkena tabernan egongo dira Urkuluko etxe- ko giltzak"

Aldaketarik egiteko asmo- rik baduzue?

Bai, piraguen erabilera siste- ma aldatu gura dugu, piraguak nork hartzen dituen jakin eta hobeto zaintzeko. Hemendik aurrera, gainera, Azkena taber- nan egongo dira Urkuluko etxe- ko giltzak, eta paper bat bete beharko da giltza hartzerakoan. Bost giltza daude guztira, eta gil- tza bat hartzen den bakoitzean 200 pezeta sartu beharko dira taber- nan egongo den itsulapikoan. Hala erabaki genuen denon arte- an, eta betetzea eskatuko nuke.

Piragui jarraipena egingo diezue?

Bai horixe. Piraguak hartze- koan ere paper bat bete behar da Urkuluko etxean. Bertan, piragua hartzerakoan eta uzterakoan zein egoeratan dagoen zehaztea eskatu- ko genuke, konponketarik behar balu arduradunok jakin dezagun.

Irteerak egiteko asmoa ere izango duzue...

Bai, baina garai honetan erre- ken egoera zelakoa den jakin gura dugu lehenengo. Ona dela ikusiz gero, berehala antolatuko ditugu irteerak hara eta hona. Piraguis- moarekin interesatuta dagoen nor- baitek zerbait baleuka esateko, martitzenetan Murrukixoko txo- kora etortzera animatu gura dugu.

PILOTA

Oraingo zapatuan hasiko da federatu bakoendako esku pilota txapelketa

Udaleko Kirol Zerbitzuak eta UDAko pilota sailak antolatu duten esku pilota txapelketa bihar, zapatua, hasiko da. Hamar bikotek eman dute izena, gehienak atxabaltarrak, eta bi talde osatu dira liga erara jokatzeko lehenengo fasea, hau da, denak denen aurka. Hemendik eta Santamasa bitartean zapatu goizero jokatu- ko dira pilota partiduak Iturrigorri frontoian.

KROSA

Atxabaltar ugarik hartuko du parte domekan egongo den Behobia-Donostia herri krosean

Urtero moduan, aurten ere, atxabaltar ugari izango da domekan Behobiako irteeran. Batzuk automobileraz joango dira, beste batzuk autobusez. 15 bat lagunek eman dute izena, hain zuzen. Autobu- sez doazenak, gainera, herri kros horretan parte hartu ostean, Donostiako Marianisten ikastetxean dutxa hartu eta Zarautzen dagoen sagardotegira joango dira bazkaltzera.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

UDA-Gure Txokoa
Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

Zumaiako-UDA

Bigarren mailako erregionala.
Zapatua. 18:00. Zumai.

PILOTA

Aretxab. (2)-Hernani

Aretxab. (1)-Añorga

Seniorrak.

Aretxab.-Ordizia

Lehenengo mailako jub.
Zapatua. 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Oiartzun 1 UDA 0
Preferentea.

UDA 1 Danok bat 4

Gazteen Euskal Liga.

Eibartarrak 1 UDA 3

Bigarren mailako erregionala.

UDA 5 Zumaiako 0

Bigarren mailako gazteak.

Anaitasuna 5 UDA 2

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA (b) 1 Amaikak bat 1

Soraluze 1 UDA 0

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Joan den asteburuan ez zen pilota partidurik jokatu.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta egokitzean diplomatua

ZERBITZUAK

- Osteopatia:
Kraneala
Estrukturala
Funtzionala
- Lotura muskularrak

Aurrez lekua eskatzeko:
943 77 04 34



MUNDUTARRAKARETXABALETAN

HERMUT KRUSE

36 URTE / LANGILEA / ARETXABALETAN

“Herri txiki honetan gazteendako tabernak bakarrik eskaintzen dira”

AMAGOIA LASAGABASTER

Duela urte eta erdi etorri zen Hermut Kruse Alemaniatar Aretxabaletara. Lanarengatik lehenago ere inguru hauetan ibilitakoa da; hala ere, bere azken bidaian behin betiko bizilekua topatu zuen Aretxabaletan. Azken erabaki horretan gaur egun bere emazteak denak zerikusitandia izan zuen. Izan ere, umea eduki eta etxebizitza finkatzea bien erabakia izan zen.

Hermut Berlinekoa da izatez, hiriburu handi batekoa, hortaz. Horregatik, beste kultura eta herrialde berri bat ezagutzeaz gain, herri txiki baten bizimodura ohitu beharra izan du. Eta hasiera baten herri txiki eta polita dela esan arren, bere alde txarra ere aurkitu dio herriari. “Oraindik ere ez dut ulertzen zelan egon daitezkeen gazteak goizeko ordu txikiak arte kalean eta tabernetan”. Hermut-ek ohitura horiek ez ulertu arren, badaki Aretxabaletan gazteendako ekintza gutxi antolatzen direla. “Herri txiki honetan gazteendako tabernak bakarrik eskaintzen dira, eta hori benetan triste da”. Baina dena ez da kritika. Hermut-i hemengo paisaia izugarri gustatzen zaio, baita hemengo jendearen bizimodua ere. Alemania-rekin alde-

ratuz hemengo bizimodua alaiagoa dela eta diruari garrantzi txikiagoa ematen diogula dio. “Alemanian, auto handi bat eta etxe izugarri bat ez badituzu, ez zara inor, hemen jendea lasaitasun handiagoarekin bizi da eta hori gustuko dut”. Herritarrei

“Alemanian, auto handi bat eta etxe izugarri bat ez badituzu, ez zara inor”

dagokienez, gorroto duen beste ohitura bat berba eta, batez ere, eztabaidatzen dugun era da. “Berba egin baino, hemengoek garrasi egiten duzue”

Kritikak kritika, Hermut-ek atxabaltartzat dauka bere burua. Hala ere, hango jendea sarri sumatzen du faltan, eta horrelakotan badakiz zer egin. “Europar dagoeneko ez dago distantziarik. Nahi dudanean hegazkina hartu eta bitorduan Berlinen nago”.



HURRETIK



Itxaro Zubillaga

Telebisiñoko aurkezle

Arrasaten ekin zan Itxaro kazetari lanetan. Gero, telebista haundire fan zan, ETBra. Han, ‘Jaiak’ eta ‘Sorginen Laratza’ programetan ibilli zan. Oin, ETB-2ko ‘Lo Que Faltaba’n dabil.

Zenbat denpora daroiezu LQFn?

Aurten, laugarren denboraldixe egin dogu, eta 1.000. programaraiño heldu gare.

Zergatik daukie halako arrakastie LQF moduko programek?

Onartu ez arren, txutxumutxuzale amorratuek garelako danok.

Yolanda ala Txetxu?

Bixek dittut gogoko.

Egixe da oso txarto konponketan diela Txetxu eta Yolanda?

Ez, bakotzak bere papela dauko, baiñe ni testigu ondo konpontzen diela.

Jairik jai ibiltie ala kirol barrixen atzetik ibiltie?

Kirolen atzetik, duda barik.

Boris Izagirre ala Klaudio Landa?

Klaudio. Boris baiño gehixago ezauketan dot, eta gaiñera, oso jatorra da.

Ze eskaketan dutzezu mutil bati?

Gauza haundirik ez: jatorra izetie.

Hiriko ala herriko gau-girue?

Herrixetakue gehixago gustetan jat.

Famien pixue igerten dozu?

Herrixen ez hainbeste, kanpuen apurtxo bat bai.

Ikusi dozun azken pelikulie?

Juana la Loca.

ARETXAGAZETA, Goienkaria barruen ala kanpuen?

Herritar danok ohitu biherko gare, baiñe nik ondo ikusi dot barruen be.

Manolo Zubillagaren alabie izenda, derrigorrez izen biher kirolzalie?

Duda barik. Horixe ikesi dot etxien. Txikitxotatik erueten nindduen aitek Uda-ko partiduek ikusten.

AMAGOIA LASAGABASTER

NIREBIDAIAHURA / Oier Etxebarria

Uzbekistan, Kirgizistan, Kazakhstan / 2001eko abuztua


Asian sekula egon barik zegoen Oier. Gainera, kontinente horretako erdialdeak bazeukan Oierrendako aparteko erakargarritasuna. Aurrez, herrialde ezezagunak ziren gaur egun horrenbeste entzuten ditugun Afganistango inguruak. Hortaz, gune hartara bidaia egitea pentsatu zuen joan den abuztuan. Uzbekistan, Kirgizistan eta Kazakhstan herrialdeetarako bidaia-txartela hartu eta lagun batekin joan zen abenturan.

Oierrek ez zekien zer aurkituko zuen, entzuna zeukan erlijio aldetik nahiko fundamentalistak zirela, baina hango errealitatea bestelakoa dela kontatu digu. “Leku lasaiak dira Uzbekistan, Kirgizistan eta Kazakhstan. Musulmanak dira, baina ez erradikalak”. Hala ere, hiru herrialdeetan traba burokratiko ugari izan zuten. “Agiri dezente bete behar da, estatu batera sartzen zaren bakoitzean erregistroa egin, bisatuak... burokrazia ugari dago”.

Oierrek “Ruta de la seda” izenekoaren zati batzuk egin ditu. Egia esan, ez dira oso lurralde turistikoak, baina erabat harrituta geratu zen han ikusitako monumentuen edertasunarekin. Gida bat eraman zuten, batez ere, lo egiteko lekuak erraz aurkitzeko. Gainerako guztia zetorren moduan hartu zuten.

Hizkuntzari dagokionez, lurralde bakoitzak berea propioa du, baina urte askoan Errusiaren menpe egon direnez, denek ulertzen dute errusiera. Inguruko lurraldeetan leinu arteko gerrak egon arren, Oier izan den lekuetan bakea dela nagusi esan digu. “Turista bezala ez dugu inolako arriskurik bizi izan”. Bukatze-ko, Oierri galdetu diogu zein den hona ekarritako oroigarrik onena, eta, duda barik, “hango jendearen oroitzapen” erantzun du.

AMAGOIA LASAGABASTER



Uzbekistanen, Bukharako medressa edo Coran eskola bat



“Erlizioz musulmanak izan arren, ez dira erradikalak”

“Turista bezala ez dugu inolako arriskurik bizi izan”

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea
Aretxabaleta
943 79 05 83

REGIO

optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

Expres



Santakurtz, 16
943 79 23 43

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 9a / 55. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 2550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com

'Xalbador' bertsolariak merezitako omenaldia jaso zuen Eskoriatzan

AINTZANE GARDOKI

Fernando Aire *Xalbador* zenaren heriotzaren 25. urteurrenean, omenaldi beroa egin zioten Urepeleko artzainari Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Xabier Amuriza bertsolariak kantaldi berezia egin zuen haren ohoretan.

Xalbador, 25 urte geroago egitarauaren barruan, Xabier Amuriza bertsolariak *Xalbador*-en batbateko ehun bat bertsoan oinarritutako kantaldi berezia egin du aste honetan Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Behe Nafarroako bertsolari handiari egindako omenaldian. Amurizak eskainitako kantaldiak *Xalbador*, *Bat-bateko mirakulua* diskoan du oinarria, eta diskoan beste pertsona batzuen laguntza jaso bazuen ere, Eskoriatzan, berriz, bakarrik aritu zen Amuriza.

25. URTEURRENA

Hilaren 7an bete dira 25 urte Fernando Aire *Xalbador* poeta eta bertsolaria hil zela, omenaldia



Xalbadorren omenetan bi saio eskaini zituen Amurizak

jasotzen ari zen egun berean, hain justu ere. Bertsolari ezaguna izan zen oso, Euskal Herriko plaza eta herri askotan ibili zen kantari, Mattin lagun zuela gehienetan.

Hainbat bertso txapelketatan txapelondorde izan zen. Haren omenez, *Xalbador*, *Literatura Sor-kuntzarako saria* ere sortu zuten; izan ere, bertsolari hark utzita-

ko arrastoa handia izan da euskal kulturaren. Gure ibarretik kanpo ere ekitaldi ugari egin dira Euskal Herri osoan Urepeleko bertsolariaren omenez.

'Xalbador' duela 25 urte hil zen, omenaldia egiten ari zitzaien egun berean

Amurizak kantaldi berezia egin zuen Urepeleko artzainaren ohoretan

'Xalbador'ek plaza eta herri asko ibili zituen, Mattin bertsolaria lagun zuela

HERRITARRENHITZA / Jotajota Arrieta

Bihotzeko berriak

Hau buruhaustea! ZE BARRI?k aldizkakotasuna eta hedapena aldatu dituela eta eskribientiok ere zer edo zer aldatu egin behar. Irakurleak dozena erdi izatetik dozenara heldu daitezkeela eta, gaiak ere zabaldu egin behar.

Zeri helduko begira ibili eta gero, topatu dut bai, jorratzen asmatuz gero, aldizkarian tokitxo bat eman diezadakeen gaia: bihotzeko berriak. Hobe esanda, bihotzeko berriei buruzko iritzia.

Honela, bada, hemen nauzue puri-purian dagoen gaiari buruzko iritzia emateko: On Felipe Asturiasko printzea-

ri ezkontzarako zein komeni zaion aztertzen. Hau lana!

Zer behar da, bada, On Feliperen ezkontidea izateko? Hainbat eta hainbat bertute aipatuko nituzke, baina denen gaineratik bat. Bere lanean, erregina kasu honetan, profesional ona izatera eramango duena: prestakuntza, hain zuzen. Eta horretarako ez dago ez LH, ez DBH, ez GB, ez Lanbide Heziketarik, ez Mondragon Unibertsitate-



"Zer behar da On Feliperen ezkontidea izateko?"

eta ez ezer.

Lanbide horretarako jaio orduko ekin behar zaio prestaketari, eta hemen dago gakoa; ez odol garbitasunean, leinuan, erlijioan edo konstituzioan. Zorionez edo zoritxarrez, gustatu edo ez, heziketa horrek eskola bakarra du: etxea. Beraz, derrigorrezkoa deritzot On Feliperen ezkontidea Erret Etxeren batekoa izatea.

Hau oinarritzotzat hartuz

gero, bi gauza argi daude. Bat, azkenaldian aldizkarietan azaltzen den neskatoa baztertu beharra dugula (izen horrekin munduko baldintza guztiak beteko balitu ere, baztertzekoa da-eta, Evax Anum: ipurtzularako konpresa). Eta bi, profesionaltasunak zeharo murrizten duela ezkontidegaien zerrenda, eta era berean, gure lana errazten duela. Hala izanik, zerrenda aztertu eta gero, hona nire aholkua: direnen eta ez direnen baldintza guztiak betetzen dituen ezkontidegaia (eta ezkontidegaia) har dezala: Monako-ko Alberto.

LABUR

Erretzen uzteko programa antolatuko du Udalak

Eskoriatzako Udal Prebentzio Zerbitzuak erretzen uzteko programa jarriko du abiar datorren azaroaren 14an eguaztena. Programa terapeutikoa izango da eta bi aldiz izango ditu. Tratamendua taldeka egingo da, eta mediku eta psikologo profesionalen laguntza izango da. Prebentzio Zerbitzuak erretzaile guztiak animatu gura ditu programaren parte hartzera; hala ere, erretzen uzteko erabaki sendoa hartu dutenendako da programa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal Bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura Etxea	943 71 46 88
Gizarte-Laguntzaila	943 71 31 36
Kiroldegia	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo-Eskola	943 71 54 53
Axtroki?	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxia	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Ekualde-Ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze-Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

EUSKAL JOLAS ETA KANTU FESTA

Aurreko asteetan ikastaroan parte hartu duten ikasle, hezle eta gurasoek, umeekin batera jolas festa egingo dute, bihar, goizeko 10:00etatik 13:00etara

PERRETIXIKO ERAKUSTALDIA

Luis Ezeiza Guraso Elkarteak antolatuta, bihar goizeko 9:00etan perretixikoak biltzeko irteera egingo da plazatik. Igandean erakusketa egingo dute plazan.

TENEMPIE ANTZERKI LANA

Latirili antzerki taldearen eskutik, azaroaren 16an, 22:30ean, J.A ikastolan.

AXTOKIRENAGENDA

EKITALDI UGARI AZAROAN

Udazken kulturalaren barruan Axtroki euskara taldeak hainbat ekitaldi antolatu du azaroan. Bertso afaria, Kubari buruzko diapositiba emanaldia, eta pailazoak txikieneztat.

GIZARTEA

Herriko kale izendegian hainbat aldaketa datoz

AINTZANE GARDOKI

Udalak irailaren amaieran egin dako osoko bilkuran, herriko kale izendegian zenbait egokitzapen eta aldaketa egitea proposatu zuen. Eskoriatzarrei, horren berri eman zieten, eta hilabeteko epea izan du herritar orok, iruditzen zitzaion iradokizun edo proposamenak egiteko.

Aldaketei dagokienez, Olaeta Enparantzarentzako proposamen berria, Olaeta Plaza da. Arbiñoste Pasealekuarentzako, berriz, Arbiñoste Kalea. Eduardo Gorosarri Jaunaren Plazari, Eduardo Gorosarri Plaza izena jarri diote, eta Antontxu Plazatzarentzako proposamen berria, Antontxu Bidea da.

Aldaketez gain, iraileko osoko bilkuran egokitzapen batzuk

Herritarrek iradokizunak eta proposamenak egiteko epea gaur amaitu da

egitea ere onartu zuten Udala osatzen duten alkate eta zinegotziek. Lau multzo edo puntu nagusitan banatu zuten atal hori. Orain, Gaztañadui Kalea dena, herriko plazan hasi eta Aretxabaletako mugetarino luzatzen da, eta horregatik, Udalaren proposamenaren arabera, kale hau hainbat zatitan banatuta geldituko litzateke. Aingeru Ibilto-

kian ere, Alzako zubitik Mirvateraino Aingeru Guarda Pasealekuaren barne gelditzea iradoki du Udalak, eta hortik aurrerakoek, Mazmela Bidea izena hartuko lukete. Hirugarren puntuan, Hidalga kaleko 20. eta 21. eraikinak San Juan Kalean gelditzea proposatu dute. Eta Base-ri sakabanatuei dagokienez, ondokoak dira proposamenak: Zapategi baserria Aingeru Guarda Pasealekuaren barne gelditzea, eta Uruben, Belar-Etxea, Nordebizi, Aitzorrotzpe-goikoa eta Aitzorrotzpe-bekoa Aitzorrotz Bidea izatea.

Egotekotan, herritarrek egin dako iradokizunak aztertuko ditu Udalak datozen egunetan, eta azaroaren bukaeran onartuko dute izendegien aldaketa eta egokitzapena egitea.




Ezkurtxo, Zarimutzen

Jose Arana ikastolak antolatuta, Ezkurtxori oraingoan Zarimutzerera joatea tokatu zaio. Eskoriatzako elizateak ezagutzeko helburuarekin, duela bost urte hasi zen Ezkurtxo auzoz auzo. Boli-barren hasi, Marinen jarraitu, gero Apotza ezagutu eta aurtun Zarimutzen batu dira Ezkurtxoren lagunak.

Egun zoragarria izan zuten bertara hurbildutako ume eta gurasoek. Lehenengo Zarimutzi buruzko diaporama ikusi zuten, "Manex eta Piarresen" ipuina entzun ondoren, linterna eta guzti, trenbide zaharreko tunelak zeharkatuz, ibilalditxo egin zuten. Txokolate beroa hartu eta Ezkurtxoren pinak egin ez bukatu zuten eguna.

Mazmela eta Gellao falta ditu ezagutzeko Ezkurtxok. /Aintzane Gardoki

BOTEPRONTOAN



Jasone Erostarbe

liburuzaina

Jasone oñatiarra da, eta Zaragozako Unibertsitatean Bibliotekonomian diplomatua da. Apiriletik liburutegiaz arduratzen da.

Nolatan liburutegiko arduradun?

Ordezkapen bat egitea tokatu zait.

Eskoriatzarrak nolako irakurleak dira?

Irakurleen parrokia txiki bat badago. Kliente fijoak ditut.

Telebista ikustea ala liburu bat irakurtzea?

Liburu bat irakurtzea.

Irakurketarako ordu egoki bat?

Gaua.

Irakurri duzun azken liburua?

Javier Muguruzaren *Sebas leihotik begira*.

Gustuko duzun idazle bat?

Asko. Beharbada, Milan Kundera.

Arantxa Iturbe edo Arantxa Urretabizkaia?

Urretabizkaia.

Atxaga ala Saizarbitoria?

Bernardo Atxaga.

Gomendatu liburu bat

Xabier Etxebarriaren *Egun denak ez dira berdinak*.

Herriko txokorik gustukoena?

Ikusteko, Apotzagako hilerria.

ZE BARRI irakurtzen da liburutegian?

Bai, irakurtzen da.

AINTZANE GARDOKI

BERALAN



KRISTALDEGIA

- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak egiten ditugu

Lantokia eta Erakusketa: Herriko Plaza, 8

Tfnoa.-Faxa: 943 78 81 78

20560 ARETXABALETA



DORLETA

Aranburuzabala, 22 behea

ESKORIATZA

Tfnoa.: 943 71 51 20

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza
Dekorativo eta
Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA

Tel.-Faxa: 943 71 47 28

Arrasate Tel.: 943 77 16 66

Mobila: 608 92 11 18

Leintz Gatzagan dena prest dago "San Milixan, ardikixa jan eta aketeixan"

AINTZANE GARDOKI

Domekan egingo da Gatzagan IX Langintzen Ferixa. Euskal Herri osoko 15 artisau arituko dira Gatzagan goizeko 10:30ean hasi eta arratsaldeko 20:00ak bitartean. Artisauen lanak ikusteaz gain, irametak zelan egiten diren ikusteko aukera ere izango da.

Ohitura zaharrak jaso eta erakusteko ahalegina egiten ari da Gatzagako herria; izan ere, iaz, San Milixan Egunerako txondorra egin zuten gatzagarrek, eta domeka honetarako irametak zelan egiten diren erakutsi nahi dute herriko plazan. Artisauen lana izan da azken bederatzirteotan nagusi, eta horrela izango da aurtengoan ere, baina antolatzailleen esanetan, aurrerapausoa egin nahi da, eta eskuz lantzen diren produktuez gain, gure aiton-amonek ohiko zituzten eta egun ahaztuta ditugun lanen berri ere eman gura dute San Milixan Egunean.

Basoan, idi eta guzti, irak jaso, eta Gatzagara eguerdirako helduko dira, han, gerturatutako guztiei metak zelan egiten diren erakusteko.

HAMABOST ARTISAU FERIXAN

Bestalde, goizeko 10:30ean hasiko da Langintzen Ferixa. IX.a egingo du aurtengoak, eta hamabost artisau izango dira guztira, bederatzirtekoak, hiru Bizkaitik, bi Nafarroatik eta bakarra Arabatik. Ikusgai izango dira, besteak beste, zapatagintza, kapelagintza, zeramika, egurrezko jostailuak, bitxiak, beira, larrugintza, forja, kandelak, grabatuak, lore lehorrak, papera, galdaragintza eta egur transformazioa.

PARTE HARTZE HANDIA

Hasiera-hasieratik izan du oso harrera ona San Milixan Ferixak, nahiz eta askotan eguraldiak ez duen lagundu. Urtez urte gora egin dute bisitarien kopuruak eta, horrekin batera, herritarren lanerako nahiak. Horren lekuko argiena Gatzagako Sorgina ema-



Iaz, artisautza tresnez gain, herritarrek egindako txondorrek arrakasta handia izan zuen

kume taldea da. Herriko emakume nagusienek egiten dituzten taloek, adituen arabera, ezin esan parekorik dutenik. Oraingoan ere goizean goizetik talo ederrak egingo dituzte gerturatzen diren guztiendako.

AUTOBUSA URTERO LEZ

Gatzagara datorrenak eskura eta doan izango du Dorletatik herrira egun osoan ibiliko den autobusa. Sor daitezken aparkamendu arazoak ekidin gura dituzte horrela. Udaletik dei hori egin nahi diete bisitariei, alegia, automobila Dorletan utzi eta autobusez edo oinez etor daitezela herrira.

Gatz Museoa eta Jakion ere egun osoan egongo dira zabalik domekan. Museoak, dena dela, ohiko bisitaldi gidatuak eskainiko ditu, hau da, goizeko 11:30ean eta 12:30ean, eta arratsaldeko 17:00etan eta 18:00etan.

AMAIA OLABE / KULTURA ZINEGOTZIA

"Ohitura zaharrak suspertu nahi ditugu"

Zertan aldatu da Ferixa bederatzirte hauetan?

Hasieran, herriko artisauak hartu zuten euren gain, Udalaren laguntzarekin, Ferixa antolatzea. Orain, berriz, Udalak du ardurua osoa. Lehendik hona artisauendako standak egokitu dira, eta artisauak, egun, Gatzagara etortzeko eskakizuna euren egiten dute, ez gara gu joan behar izaten haien atzetik. Askok aldatu da, eta onera egin duen dudarik



ez dago.

Ohitura zaharrak ere suspertu nahi ditu San Milixanek?

Bai. Iaz, txondorra egin zuten herritarrek. Izugarritzko arrakasta izan zuen. Aurtan, ira-

metak zelan egiten diren ikusiko dugu, eta datozen urteetarako ere baditugu gauza batzuk buruan. Oso garrantzitsua da ohitura zaharrak erreperatzea.

Eta Ferixa dagoenetan mantenduko da?

Nire ustez, artisautzaz gain, hemengo produktuek, hau da, jatekoek, lekua izan behar lukete, eta, horrez gain, lehen esan bezala ohitura zaharrak ezin ditugu gal-

Talo gozoak jan eta irametak zelan egiten diren ikusteko aukera izango da

Euskal Herritik etorritako hamabost artisau arituko dira goizeko 10:30etik gaueko 20:00ak arte

Gatz Museoa eta Jakion egun osoan izango dira zabalik. Autobusa doan izango da


tzen utzi. Ona izango litzateke, adibidez, buzkantzak zelan egiten diren erakustea, edo turroia, edo txokolatea...

Zer eskainiko zaio Gatzagara hurbilduko denari domekan?

Ferixaz gain, Gatzaren Museoa eta Jakion ere zabalik egongo dira egun osoan. Azken baten, giro ezin hobean egun polita igarotzeko aukera izango dute Gatzagara gerturatzen diren guztiak.

FAGOR 

Fagor Ederlan, S.Coop



M **MONDRAGON**
AUTOMOCION

AUTOENDAKO OSAGIAK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00

Golo
gazte moda

Tel.. 943- 71 45 61

Multi Txartela: zerbitzu guztiak biltzen dituen txartel berria



Multi Txartela

Visa Txartela

Telebanka

Caja Laboral Net

Multi Txartel berrian, banku-txartel baten zerbitzuak eta telefono zein Internet bidezko kontsulta eta eragiketak biltzen dira.

Gure txartelen baten titularra bazara, orain zerbitzu gehiago gehitu diezaiokezu Multi Txartel bihurtzeko.

Visa Clasica
Visa Ikastolak
Visa Medicus Mundi
Visa Caritas

Visa Electron Gaztea

Visa Electron


Visa Oro

Gainera, erabiltzen duzun txartelaren zerbitzu osagarri guztiak izango dituzu.

Txartel osagarriak - Aseguruak - Ordainketa atzeratuko modalitatea - Bidai asistentzia - Travel puntuak

Eska ezazu Multi Txartela, zure kontuak gestionatzeko bitartekorik eroso eta berritzaileena.

901 333 444
www.cajalaboral.es


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin
konprometitzen
gara

TDCi

Common Rail berria
130 CV



lider **naturala**

MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

www.mugarri.es / mugarri@mugarri.es